Antsoain BIM Ansoáin

Antsoaingo
Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información Municipal
de Ansoáin

2021 Apirila - Abril • nº 23.zka

## ANTSOAINGO UDALAK 339.590,95 EUROKO SALDO POSITIBOAREKIN ITXI DU 2020KO KONTUA

Antsoaingo Udalak ia 340 mila euroko superabita izan du 2020ko kontu ekonomikoaren itxieran. Horrela, diruzaintzako gerakin orokorrak 2.404.403 euroko saldo positiboa izan zuen iazko abenduaren 31n.

Idakirolak udal enpresa publikoak ere 353,92 euroko itxiera positiboa izan zuen. Gauza bitxia da; izan ere, kontuan hartu behar da zerbitzuak ematea duela helburu eta kontuetan oreka finantzarioa izatea, hau da, galerarik eta irabazirik gabe.

Datu nagusi horiez gain, beste datu bat ere izaten da oso garrantzitsua kontuen itxieran, hots, aurrezki garbia; hau da, jaki behar da udalaren diru-sarrera arruntak gauza izan ote diren udalaren beraren funtzionamendu arrunterako gastuak berdintzeko. Bada, 311.180,54 euroko balantze positiboa izan da.

2020a urte korapilatsua izan da benetan alde guztietatik begira. Izan ere, Udalak bere aurrekontu arruntak zituen, baina pandemia hasi zenean larrialdi ekonomikorako aurrekontuak egin behar izan ziren, buru gainera zetorkigun kinka larriari aurre egiteko.

Ataka hartan, eta diru-sarrerei dagokienez, udalaren kirol instalazioetan abonatuta dauden pertsonen kuotetan gertatu ziren murrizketarik handienak, bai eta kirol jardueren abonuetan ere. Horren ondorioz, Udalak 342.768 euro gutxiago eskuratu zituen.

Jarraitzen du...

## EL AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN CIERRA LA CUENTA DE 2020 CON UN SALDO POSITIVO DE 339.590,95 €

El Ayuntamiento de Ansoáin ha cerrado la cuenta económica del 2020 con un superávit de casi 340 mil euros. De esta manera, el remanente general de tesorería a 31 de diciembre del año pasado registraba un saldo positivo de 2.404.403 euros.

La empresa pública municipal Idakirolak registró también un cierre positivo de 353,92 euros, anecdótico teniendo en cuenta que su objetivo es la de prestación de servicios y se busca el equilibrio financiero de sus cuentas, sin pérdidas ni beneficios.

Junto a éstos, otro de los principales datos del cierre de cuenta es el del ahorro neto, es decir, saber si los ingresos corrientes del Ayuntamiento son capaces de soportar los gastos de funcionamiento ordinario que tiene el mismo. En este capítulo, la cuenta se cierra con un balance positivo de 311.180,54 euros.

En un año tan complicado a todos los niveles como el 2020, al inicio de la pandemia el consistorio decidió convertir los presupuestos ordinarios en presupuestos de emergencia económica destinados a hacer frente a la grave situación a la que nos enfrentábamos.

En ese contexto, la principal merma de ingresos se produjo en las cuotas de personas abonadas a las instalaciones deportivas municipales y en los abonos de las actividades deportivas. El Ayuntamiento dejó de ingresar por este concepto 342.768 euros.

Continúa....



**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2021ko ekaina – Próximo BIM: junio 2021)

Udalak, gainera, ostalaritzaren terraza-tasa utzi zion kobratzeari, 32 mila euro gutxiago eskuratuta. Era berean, haur eskolako eta musika eskolako kuotak itzuli ziren, zerbitzua eman ez zen epealdian, eta horrek diru-sarreren murrizketa ere eragin zuen.

COVID-19ak eragindako gastu handienei dagokienez, merkataritzarentzako eta autonomoentzako laguntzak aipatu behar dira eta, horrekin batera, garbiketan eta gaitz berriaren aurkako babesean egindako diru gastu bereziak.

Aitzitik, aurrekontuko hainbat partida ez ziren gauzatu, hala nola jaietakoak, aurrekontu parte-hartzaileetakoak eta beste, bai osasun egoeraren ondorioz, bai egoera ekonomiko txarra ikusita, zuhurtasunez jokatu izanaren ondorioz.

Horrez gain, Nafarroako Parlamentuaren ekimenari esker, 25 milioi euroko funts berezi bat banatu zen gure komunitateko udalen artean. Antsoainek, batetik, 183.000 euro jaso zituen, diru-sarreretan izaniko jaitsiera eta osasun krisiak eragindako gastu handiagoa arintzeko. Eta bestetik, 200 mila euro iritsi ziren, guztiak ere 2021eko irailaren 30era bitarte hainbat alorretan egin beharreko inbertsioetara bideratzeko.

Hortaz, iazkoa urte korapilatsua izan zen benetan, ezohikoa guztiz, eta azkenean, 2020. urteko diru-kontuetan itxiera positiboa izan da udal kutxarako. Horrez gain, aipatu behar da kendu egin direla Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ezarritako mugak, Estatuko Gobernuak halaxe erabakita; beraz, 2021 honetan inbertsio nabarmenak egiten ari dira. Haietako gehienak aurreko udal informazio buletinean azaldu genituen.

Además, la exención por parte del Ayuntamiento del cobro de la tasa de terrazas a la hostelería supuso también que se dejaran de ingresar otros 32 mil euros, de la misma manera que la devolución de cuotas de la escuela infantil y de la escuela de Música por el periodo en el que no se prestó el servicio, incidieron en la reducción de ingresos.

En el capítulo de mayor gasto derivado de la situación Covid se encuentran las ayudas lanzadas para el sector del comercio y el autónomo, junto a todos los refuerzos implantados en materia de limpieza y materiales relacionados con la protección frente a la pandemia.

Por el contrario, no se ejecutaron diferentes partidas presupuestarias como la de fiestas, presupuestos participativos y otras, bien por imposibilidad derivada de la situación sanitaria o por prudencia ante la incertidumbre económica existente.

Junto a ello, una iniciativa parlamentaria navarra posibilitó el reparto entre los ayuntamientos de nuestra comunidad de un fondo extraordinario de 25 millones de euros. De ese fondo, Ansoáin recibió 183.000 euros destinados a paliar la merma de ingresos y el mayor gasto derivado de la crisis sanitaria, por un lado, y 200 mil euros destinados a inversiones a realizar en diferentes áreas hasta el 30 de septiembre de este 2021, por otro.

La complicada gestión de todo este conglomerado de circunstancias excepcionales ha derivado, finalmente, en un cierre de cuenta del año 2020 positivo para las arcas municipales. Esto, junto a la eliminación para este año por parte del Gobierno del Estado de las limitaciones que impone la Ley de Estabilidad Presupuestaria, permite afrontar el 2021 como un importante año de inversiones que ya se están poniendo en marcha. La mayoría de ellas se exponían en el anterior Boletín de Información Municipal.



## ADINEKOEN ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EGOERAREN ETA BEHARREN DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

Udala, Osasunetxearekin, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Osasun Mentaleko Zentroarekin batera lanean ari da 65 urtetik gorako pertsonentzako, desgaitasuna duten helduentzako eta mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu eta jarduerak biltzeko eta berriak sortzeko. Helburua da bizikalitatea hobetzea, mendekotasuna prebenitzea, familiaren atsedena erraztea eta autonomia pertsonala sustatzea, besteak beste

Azken hilabeteetan, egoeraren diagnostikoa egin da, populazio horri buruzko datuak eta lehentasunezko beharrak ezagutzeko. Diagnostiko horren emaitza herritarrei ezagutarazteko, aurkezpen publiko bat egingo da apirilaren 27an, 18: 00etan, Antsoaingo Antzokian. Sarrera librea izango da, aretoa bete arte.

## PRESENTACIÓN DEL DIAGNÓSTICO DE LA SITUACIÓN Y NECESIDADES DE LAS PERSONAS MAYORES Y CON DISCAPACIDAD

El Ayuntamiento junto con el Centro de Salud, Mancomunidad de Servicios Sociales y Centro de Salud Mental vienen trabajando para agrupar y generar nuevos servicios y actividades para personas mayores de 65 años, personas adultas con discapacidad y personas con dependencia. El objetivo es mejorar la calidad de vida, prevenir la dependencia, facilitar el respiro familiar y promover la autonomía personal entre otras cuestiones.

En los últimos meses se ha realizado un Diagnóstico de la situación para conocer los datos respecto a esta población y sus necesidades más prioritarias. Para dar a conocer a la población el resultado de este diagnóstico se realizará una presentación pública del mismo el día 27 de abril a las 18:00h en el Teatro de Ansoáin. La entrada será libre hasta completar aforo.

## BI URTE BETE DITU CES ANSOÁIN ELKARTEAREKIKO LANKIDETZAK

2018 bukaeran, Udalak lankidetza hitzarmen bat sinatu zuen CES Ansoáin elkartearekin, herriko kaleetan dabiltzan katu koloniak "CES" sistemaren bidez kontrolatu eta kudeatzeko. Hau da, kalean bizi diren katuak harrapatu, antzutu eta askatzen dira.

Hortik aurrera, Udalak 3.000 euroko diru ekarpena eman dio elkarteari urtero lan hori egiteko. Elkarteak, zehazki, katuak harrapatu, antzutu eta parasitoak kentzen dizkie eta, beharrezkoa bada, albaitari-tratamendua ere ematen zaie. Bestalde, katu kolonietan albaitari arloko larrialdirik sortzen bada, horretaz ere arduratzen dira.

Horrela, CES Ansoáin Elkarteak udalerrian ditugun katu koloniak atzeman, zaindu eta kontrolatzen ditu; horrekin batera, Udalari jakinarazten dio koloniak non dauden eta zenbat katu diren.

Elkartea boluntarioz osatua dago, eta guztiek ere erabateko eskuzabaltasunez dihardute. Horrela, hitzarmena sinatu zenetik hona, 40 katu baino gehiago harrapatu eta artatu dituzte. Haietariko 27 antzutu egin dituzte.

Era berean, 27 katu karrikatik atera edo kendu dituzte, jendeak adoptatu dituelako. CES-Ansoáin Elkarteak ere arlo hori lantzen baitu.

Horrenbestez, bi urteotan, gure herrian dauden koloniak detektatuz eta kontrolatuz, lankidetza emankorra izan da benetan, bi arrazoi direla medio: batetik, animalia horien ongizatea lortzeko eta, bestetik, Antsoainerako ere gauza onuragarria delako.

## SE CUMPLEN DOS AÑOS DE COLABORACIÓN CON LA ASOCIACIÓN CES-ANSOÁIN

A finales de 2018 se firmó un Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento y la asociación CES Ansoáin para el control y gestión de las colonias de gatos callejeros del municipio, a través del sistema "CES" que consiste en la captura, esterilización y suelta de ejemplares de las colonias felinas detectadas.

A partir de ahí, la colaboración se ha venido materializando a través de una aportación económica anual de 3.000 euros que el Ayuntamiento de Ansoáin destina para tal fin y que la asociación utiliza para la esterilización, desparasitación y tratamiento veterinario, en caso de ser necesario, de los ejemplares capturados, así como las urgencias veterinarias que puedan surgir en las colonias.

De esta manera, la Asociación CES Ansoáin se encarga de la detección, vigilancia y control de las colonias felinas existentes en el municipio, así como de informar al Ayuntamiento de su ubicación y número de ejemplares detectados.

La asociación está formada por personas voluntarias que, de manera totalmente altruista, en estos dos años de vigencia del convenio han capturado y atendido a más de 40 ejemplares de gatos, 27 de los cuales fueron esterilizados.

La misma cantidad, 27 de ellos, fueron sacados de la calle gracias a su adopción, otro de los aspectos que trabajan desde CES-Ansoáin.

Han sido, por lo tanto, dos años ya de colaboración fructífera para lograr el bienestar de estos animales a través de la detección y control de las colonias existentes en nuestro pueblo, un objetivo beneficioso también para Ansoáin.



## ANTSOAINGO KONTSUMITZAILEEI ARRETA EMATEKO BULEGOA

Irache Elkarteak kudeatzen du Kontsumitzaileei Arreta emateko Antsoaingo Udal Bulegoa eta, 2020an, 646 kontsulta eta erreklamaziori erantzun zien, honela sailkatuak:

- Bankuak eta kutxak: 99 kontsula eta 80 erreklamazioa.
- Argia eta gasa: 120 kontsulta eta 115 erreklamazio.
- Aseguruak: 51 kontsulta eta 33 erreklamazio.
- Telekomunikazioak: 118 kontsulta eta 98 erreklamazio.
- Etxebizitza: 49 kontsulta eta 8 erreklamazio.
- Ibilgailu erosketa eta konponketa: 10 kontsulta eta 6 erreklamazio.
- Zerbitzu teknikoak: 4 kontsulta eta 2 erreklamazio.
- Bidaiak: 15 kontsulta eta 9 erreklamazio.
- Zerbitzuak eta saltokiak: 10 kontsulta eta erreklamazio 1.
- Besterik: 10 kontsulta eta 8 erreklamazio.

Bulegoak lau orduko zerbitzua eskaintzen du doan, astean. Honatx ordutegia:
Asteartea, 10:00etatik 14:00etara.

Egungo egoeran, kontsulta eta erreklamazio batzuei telefonoz ematen zaie arreta, eta beste batzuei, berriz, aurrez aurre, Antsoaingo Udaleko bulegoan. Hitzordua 012 telefonoan eskatu behar da aurrez.

## OFICINA DE ATENCIÓN A LAS Y LOS CONSUMIDORES DE ANSOÁIN

La Oficina Municipal de Atención al Consumidor y Consumidora del Ayuntamiento de Ansoáin, gestionada por la Asociación Irache, atendió 846 consultas y reclamaciones durante el año 2020. Se repartieron de la siguiente manera:

- Bancos y cajas: 99 consultas y 80 reclamaciones.
- Luz y gas: 120 consultas y 115 reclamaciones.
- Seguros: 51 consultas y 33 reclamaciones.
- Telecomunicaciones: 118 consultas y 98 reclamaciones.
- Vivienda: 49 consultas y 8 reclamaciones.
- Compra y reparación de vehículos: 10 consultas y 6 reclamaciones.
- Servicios técnicos: 4 consultas y 2 reclamaciones.
- Viajes: 15 consultas y 9 reclamaciones.
- Servicios y comercios: 10 consultas y 1 reclamación.
- Varios: 10 consultas y 8 reclamaciones.

La oficina ofrece un servicio gratuito de atención de cuatro horas semanales, con el siguiente horario:
Martes de 10:00 a 14:00 horas.

Durante la situación actual se vienen atendiendo las consultas y reclamaciones mediante atenciones telefónicas unas y presenciales otras en la oficina del Ayuntamiento de Ansoáin. Para solicitar cita previa hay que llamar al teléfono 012.

## OSOKO BILKURAK HAINBAT ALDAKETA ONETSI DITU AURREKONTUETAN

2021 honetako lehen hilabeteotako oso bilkuretan hainbat aldaketa onetsi dira aurrekontuetan:
- 2.618,02 euro erabiliko dira ibilgailu elektrikoen kargarako bi gune jartzeko proiektua egiteko.
- 19.057,50 euro, Idaki kirol instalazioetako kanpo irisgarritasuna hobetzeko.
- 57.265,67 euro, herriko haur parkeetako lurra berritzeko.
- 18.089 euro, Antsoaingo Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana idazteko.
- 12.545 euro, Idaki instalazioetako galdararen aldaketa lizitatzeko behar den proiektu teknikoa taxutzeko.

## APROBACIÓN EN PLENO DE VARIAS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

En los plenos de los primeros meses de este 2021 se han aprobado varias modificaciones presupuestarias:
- 2.618,02 euros destinados a la elaboración de un proyecto de instalación de dos puntos de recarga para vehículos eléctricos.
- 19.057,50 euros para la mejora de la accesibilidad exterior a las instalaciones deportivas de Idaki.
- 57.265,67 euros para la renovación del suelo de los parques infantiles de la localidad.
- 18.089 euros para la redacción de un Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Ansoáin.
- 12.545 euros para la elaboración del proyecto técnico necesario para la licitación del cambio de la caldera de las instalaciones de Idaki.



## BI KONTRATAZIO ESPEDIENTE ONARTU DIRA: BIDE GARBIKETA, ETA GASAREN ETA ARGINDARRAREN HORNIKUNTZA



Antsoaingo Udalak osoko bilkura berezia egin zuen, bi kontratazio espediente onetsita: horietako bat eguneko bide garbiketarako zerbitzua emateko, eta bestea, berriz, udal eraikin eta instalazioak gasez eta argindarrez hornitzeko.

Bide garbiketa kontratatzeko baldintza-plegua hainbat hilabetez prestatu da, kanpoaldeko aholkularitza tekniko batek parte hartuta, eta egungo pleguaren aldean, 51.600 eurotan igo da.

Bide garbiketarako zerbitzu hoberantz jotzeko asmoz, eta Nafarroako Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarritako printzipioak betetze aldera, hau da, tratu berdintasuna, proportzionaltasuna eta gardentasuna, zerbitzua esleitzeko irizpide gehienak formula objektiboen bidez baloratuko dira.

Era berean, pleguan hainbat mekanismo aurreikusi dira diru eskaintza baxuegiak ez agertzeko: izan ere, horrelako eskaintzek, denboraren joanean, eragina izan dezakete eman beharreko zerbitzuaren kalitatean

Gasaz eta argindarraz hornitzeko kontratazio espedienteari dagokionez, aholkularitza-enpresa tekniko espezializatu baten laguntza jaso da.

Izan ere, Antsoaingo Udalak jasangarritasunarekin bat datozen irizpideak ezarri nahi ditu bere ekintza guztietan eta, horrekin bat, helburua da, batetik, energia guztia iturri berriztagarrietatik bakarrik heldu dela bermatzea, eta, bestetik, kontsumoan eraginkortasun eta aurrezpen handiagorantz jotzea.

## APROBADOS LOS EXPEDIENTES DE CONTRATACIÓN DE LA LIMPIEZA VIARIA Y DEL SUMINISTRO DE GAS Y ELECTRICIDAD

El pleno del Ayuntamiento de Ansoáin, en sesión extraordinaria celebrada en febrero, aprobó dos expedientes de contratación, uno destinado a la prestación del servicio de limpieza viaria y otro destinado al suministro de gas y electricidad para los edificios e instalaciones municipales.

El pliego de condiciones para la contratación de la limpieza viaria ha sido elaborado a lo largo de varios meses con la participación de una asesoría técnica externa y tiene un incremento económico respecto al actual de 51.600 euros.

Al objeto de avanzar hacia un mejor servicio en la limpieza viaria y para cumplir con los principios que establece la Ley Foral de Contratos de Navarra en cuanto a la igualdad de trato, proporcionalidad y transparencia, los criterios de adjudicación, en su mayor parte, se valorarán mediante fórmulas objetivas.

De la misma manera, el pliego contempla mecanismos que desincentivan la aparición de ofertas económicas anormalmente bajas que, con el tiempo, pudieran repercutir en la calidad del servicio de limpieza a prestar.

En cuanto al expediente de contratación destinado al suministro de gas y electricidad, su elaboración también ha contado con asesoramiento técnico especializado.

El objetivo del mismo es, desde los criterios de sostenibilidad que el Ayuntamiento de Ansoáin pretende implantar en todas sus acciones, garantizar por un lado que el suministro de energía procede únicamente de fuentes renovables y, por otro, avanzar hacia una mayor eficiencia y ahorro en el consumo.



## UDABERRI MUSIKALA

Antsoaingo Udal Musika Eskolan ikasturteko bigarren entzunaldi-txanda egin zen udaberriari harrera egiteko, eta bertan ikasleek bigarren hiruhilekoan egindako lana erakutsi zuten. Kontzertuak martxoaren 15etik 18ra egin ziren Antzokian, toki kopuru mugatuarekin eta segurtasun neurri guztiekin. Eszenatokira, hainbat bakarlari eta talde igo ziren, hainbat estilotako piezak interpretatuta: klasikoa, jazza, rocka...

**MATRIKULAZIOA 2021-22!**
Animatu eta gozatu musikarekin!
IKASLE BERRIEN EPEA: maiatzaren 10etik 31ra.
GAUR EGUNGO IKASLEAK: maiatzaren 10etik 21era.
Zure zain gaude!




## PRIMAVERA MUSICAL

La Escuela Municipal de Música de Ansoáin recibió la primavera con la segunda tanda de audiciones del curso, en la que el alumnado mostró el trabajo realizado durante el segundo trimestre. Los conciertos se celebraron del 15 al 18 de marzo en el Teatro con aforo limitado y todas las medidas de seguridad. Por el escenario pasaron diferentes solistas y agrupaciones interpretando piezas de diversos estilos: clásica, jazz, rock...

**¡MATRICULACIÓN 2021-22!**
¡Anímate y disfruta con la música!
PLAZO NUEVO ALUMNADO: 10 al 31 de mayo.
PLAZO ALUMNADO ACTUAL: del 10 al 21 de mayo.
¡Te esperamos!



## HARROBI GAZTELEKUA

Kaixo Antsoain!

Berri askorekin gatoz eta hauek ospatzeko gogoz!

Lehenik eta behin Haurtoki aurkeztu nahi dizuegu, aisialdi komunitarioko talde berria eta, aldi berean, Harrobiren partehartze prozesuaren lehenengo pausoa. Hau da, Antsoaingo txikiei zuzenduta dago. Oso pozik gaude apartako harrera izan duelako. Pertsona asko apuntatu dira!

Bestetik, 200 karnet izatera iritsi garela kontatu behar dizuegu. Berri hori ospatzeko, zozketa erraldoi bat egin genuen, bazkideen artean sari pila bat banatuta. Bazkide gehiago izatea espero dugu!

Ezin dugu bukatu Gaztetxiki zoriondu gabe, inauterietan, antzerkian antolatutako playbackean, parte hartu eta bigarren saria lortzeagatik! Aupa Gaztetxiki!!! Hori guztia zuzenean ikusteko aukera izan genuen Antsofest taldeari esker.




## CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

Kaixo Antsoain!

¡Harrobi está de celebración y tenemos muchas novedades que contar!

Empezamos presentándoos el nuevo grupo de ocio y tiempo libre comunitario, Haurtoki, el primer escalón de los grupos de participación comunitaria y dirigido a las y los más txikis. Estamos muy contentas, ya que ise ha apuntado un montón de gente!

En segundo lugar os contamos que ihemos llegado a tener 200 carnets! Por este motivo, hicimos un gran sorteo y repartimos un montón de premios a todas las socias y socios. ¡Esperamos tener muchos más nuevos carnets!

No se nos olvida felicitar a Gaztetxiki, por su gran participación en el carnaval de Ansoáin, que tuvo lugar en el teatro y se vio en directo en todas las casas gracias a AntsoFest. Aupa Gaztetxiki!!!

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain

## PLAZA BIZIA

### HAURRARENGAN BEGIRADA JARRIZ MARGOTUTAKO JOLASAK

Haur-parkeek gauza asko ematen dizkiete gure haurrei. Garrantzitsuena da dibertsioa ematen dietela. Hala ere, garapen kognitiboa, fisikoa eta soziala ere sustatzen dituzte. Horregatik, funtsezkoa eta beharrezkoa da hiru zutabe horien ikaskuntza gehiago lantzea joko-arloen bitartez.

Cobid-19ak sortutako agertoki berriaren ondoren, haur parkeetan jolasteko beharra nabarmenagoa da, erabilera mugatuak daudelako. Horregatik, El Cuevo Blanco-ko artista gazteen kolektiboak ekimen artistiko eraldatzaile hau proposatzen du.

Proiektu honen bidez Antsoaingo SAKANPEA kaleko plaza, plaza bizia, koloreduna eta jolastekoa bihurtu nahi da, elkarrekin gozatu eta ikasteko.

Plaza diseinatzeko eta sortzeko, hainbat neska-mutil talderekin lan prozesu bat egiten ari da. Haiek diseinatu dituzte jolasak, eta haiek margotuko dituzte jolas horiek plazako zoruan. Horrela, jolasak marraztuko diren plazaren eremua mugatuta egongo da apiriletik maiatzera bitartean. Prozesua amaitutakoan, jolasgune berri bat izango dugu Antsoainen, gure haurrek modu seguru, aktibo eta sortzailean goza dezaten.





COLECTIVO DE JÓVENES ARTISTAS * EL CUERVO BLANCO *

## PLAZA VIVA

### JUEGOS PINTADOS PONIENDO LA MIRADA EN LA INFANCIA

Los parques infantiles aportan muchas cosas a nuestros niños y niñas. La principal es que les proporcionan diversión. Aunque también fomentan su desarrollo, tanto el cognitivo, como el físico y el social. Por ello, es fundamental y necesario fomentar más el aprendizaje de estos tres pilares a través de las áreas de juego.

Tras el nuevo escenario generado por el covid-19, la necesidad de jugar en los parques infantiles es más evidente debido a las limitaciones en su uso, es por ello, que desde el colectivo de jóvenes artistas del Cuervo Blanco, proponemos esta iniciativa artística transformadora.

Este proyecto trata de transformar la plaza de la calle SAKANPEA de Ansoáin, en una plaza viva, con color y mucho juego; donde disfrutar y aprender de manera conjunta. Para el diseño y la propia creación de los juegos se ha realizado un proceso de trabajo con varios grupos de niñas y niños. Ellos y ellas han diseñado los juegos y serán los que pinten estos juegos en el suelo de la plaza. Así, la zona de la plaza donde se dibujarán los juegos permanecerá delimitada durante mitades de abril y hasta mayo. Finalizado el proceso tendremos un nuevo espacio de juego en Ansoáin, para que nuestra infancia pueda disfrutar de manera segura, activa y creativa.


Colegio Oficial de Médicos de Navarra

CENTRO DE CONDUCTORES
CENTRO DE RECONOCIMIENTOS MÉDICOS

CONSULTA NUESTRAS OFERTAS ESPECIALES ON LINE
Cita previa y formas de contacto:
En la web www.reconocimientosmedicosnavarra.com
En el Tel.: 948 26 87 21
Por email: vcastillo@reconocimientosmedicosnavarra.com

Plaza Berria, 13 (junto a rotonda Capuchinos) - ANSOÁIN
Horario: Lunes a jueves de 9.00 a 14.00 h. Martes y jueves de 16.30 a 18.30 h.




Recorta el cupón, nos lo presentas y obtendrás
2€
DESCUENTO
*Oferta no acumulable, válida hasta el 30 de abril

## NATURAN OINARRITUTAKO IRTENBIDEAK!

Joan den martxoaren 27an, beste behin ere, Antsoaingo Udalak Udaletxe Plazako argiak itzali zituen “Planetaren Ordua” izeneko kanpainaren alde. Ekimena Naturaren aldeko Mundu Foroak (WWF) antolatzen du. Azken finean, ekintza sinboliko bat da klima-aldaketaren aurka ekin beharraz ohartarazteko eta Naturarekin bat egin behar dugula azpimarratzeko.

Izan ere, Naturarekiko lotura eta hartan oinarritutako irtenbideak (SBN) funtsezkoak dira klima-erronkak dakartzan baldintza berrietara egokitzeko, bai eta sortuko diren arazoak konpontzeko ere. Hau da, komunitate gisa dugun erresilientzia sendotu behar dugu eta gure herria bizigarriagoa egin.

Naturan oinarritutako irtenbideak asko dira; esate baterako, teilatu berdeak; lorategi bertikalak; landarez osaturiko pantailak; lurzoru drainagarriak; zuhaitz landaketak lurzoruak finkatzeko edota kale eta fatxadei itzala emateko; espezieen kontrol biologikoa; hiri-baratzeak, etab.

Horren haritik eta, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, Antsoainen ekimen bat jarri da abian usoen kontrol biologikorako. Zehazki, belatz handia espezieko bikote bat ekarri nahi dugu herrira, hemen habia egin dezaten, espezie hori usoaren harrapari naturala baita. Proiektua “hacking” deritzon teknikaren bidez egiten ari da, hau da, itxian jaiotako espezie horretako kumeak hazten dira eta, behin helduak direnean, Antsoain beren jatorrizko lekua dela identifikatu behar dute, hona etorri eta habia egin dezaten. Ekimena arrakastatsua izan da toki askotan eta, horren ondorioz, belatz handia hiri horietako biodibertsitatean txertatua dago.

Naturan oinarritutako beste irtenbide bat ere badugu abian, hots, intsektu izurriei edo intsektu kopuru neurrigabeari txori intsektujaleen bidez aurre egitea. Horrela, Ilundain Fundazioak lagundurik eta Ezkaba Ikastetxearekin elkarlanean, hainbat tailer eginen ditugu txori intsektujaleentzako habia-kutxak jartzeko: amilotxak, kaskabeltzak, buztangorriak. Hori ona da biodibertsitatea sustatzeko eta intsektuen kontrol biologikorako. Bestalde, Antsoaingo biodibertsitatea ere sustatze aldera, aurten ere ez dira moztuko martxotik ekainera gure parkeetako belardi batzuk, eta horrela, hainbat orkidea-espezie haziko dira. Zatozte lore-espezie horiek ikustera eta gozatzera!!



Orquídea: anacamptis pyramidalis
Orkidea: anacamptis pyramidalis

## ¡SOLUCIONES BASADAS EN LA NATURALEZA!

El pasado 27 de marzo, un año más, el Ayuntamiento de Ansoáin apagó las luces de la Plaza Consistorial en apoyo a la campaña “La Hora del Planeta” de WWF (Fondo Mundial para la Naturaleza). Se trató de una acción simbólica para llamarnos la atención sobre la necesidad de actuar frente al Cambio Climático y de conectarnos con la Naturaleza.

Y es que la conexión con la Naturaleza y las soluciones basadas en ella (SBN), deben ser la clave para adaptarnos a las nuevas condiciones del reto climático y solucionar los problemas que se vayan generando. Esto es, fortalecer nuestra resiliencia como comunidad y hacer nuestro pueblo más habitable.

Tejados verdes, jardines verticales y pantallas vegetales, suelos drenantes, plantaciones para fijar suelos o sombrear calles y fachadas, control biológico de especies, huertos urbanos, son ejemplos de soluciones basadas en la naturaleza.

